

Urritzate, ezkutuko harana

Urritzate harana (Goi eta Behe Nafarroa)

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

GORKA AZKARATE

Irubelakaskoa, Gorramendi eta Iparla mendiek, haran ezezagun bat inguratzen dute Nafarroa garaia eta behearen mugan: Urritzateko harana. Urritzateko haran ezkutua inguratzea, Euskal Herrian egin daitekeen ibilaldi ederrenetakoa da. Irubelakaskoaren –Irubelakaskoa da Iparaldekoen artean hedatuen dagoen izena, Alkaxuri deitzen diote, berriz, baztandarrek– berezko edertasuna, Iparlako gailurreriaren giro basati eta aereo gehitu aurrez esandakoari, txangoa aparta da.

Bidarrai herri behenafarra hartu dugu abiapuntu; txangoari kilometroren bat kentzeko aukera dago, Sumuseko benta zaharretik gertu dagoen Basasagar etxalderaino autoz hurbilduz gero. Bidarra inguruko mendi magaletan barreiatu dauden baserritara daramaten pistetan zuzena aukeratzea ez da lan erraza. Pistetako bat besteak baino zabalxeagoa da, eta horixe da, prezeski, hautatu beharrekoa Irubelakaskoa oinera heltzeko. Bastan ibaia –eta ez Baztan– Infernuko zubi ezaguetik zeharkatu eta aurrera egingo dugu, beraz, Basasagarrenaino. Itxuraz mendiaren erraierara garamatzen kaminoaren amaieran zer eta, aparkalekutxo! aurkituko dugu halakorik... Bidean kontuz gidatu, estu samarra eta bihurtune itxi ugari baina. Inguruko baserri batzuetara ez omen da oraindik argindarririk iritsi.

Ibilaldiaren abiapuntutik gertu, bidegurutzet batekin egingo dugu topo: GR-10 zeharkaldiaren margo ikur zuri-gorriek eskuinerantz hartzen dute, Ainhoarantz; guk, berriz, ezkerreko bidetik egingo dugu.

Basasagar etxaldera autoz edo oinez inguratu ostean, benetako txangoari ekingo diogu. Aparkalekua baino beheaxeago hautemango dugun Sumuseko bentatik gertu, Urritzate eta Aritzakun errekaetako bat egiten dute, hemendik aurrera Bastan izena hartuko duen erreka nagusixeagoa elikatuz. Bidarra herrian bertan hilko da, ordea, Bas-



tan, Donibane Garazitik datorren Errobiko uretan. Irubelakaskoa mendia, izatez, Urritzate eta Aritzakun bailarak banatzen dituen erpina da. Piramide perfektua.

Ikusgarria da Sumuseko bentatik behatuz Irubelakaskoak eskaintzen duen aurpegia. Inguruko mendi guztiak gailur borobilduak diren bitartean, Irubelakaskoak ertz zorrotzak ditu, hegoaldekoan ez beste isurialde guztietan. Orain gutxira arte jende gutxi bisitatzen zuen mendi hau. Sumuseko bentara autoz inguratzeko aukera dagoenetik, gauzak dezente

aldatu dira. Parajearen berezko edertasunak, baina, bere horretan dirau.

Ez da zaila Irubelakaskoako gailurrera eramango gaituen bidexka nondik abiatzen den hautematea: piramidearen oinetik bertatik. Ahalegin handi samarra eskatuko digu altuera irabazteak, baina, era berean, Urritzate eta Aritzakun haranen gaineko panorama ikusgarriaz gozatu ahal izango dugu gorantz egin ahala. Baita Itsusiko harrien eta jarraian bisitatuko dugun Iparlako gailurrerriaren gainekoa ere. Etenik gabeko igoera, baina ederren artean ederrena. Ezkietako



Ondarre baserria



20214 Segura (Gipuzkoa)
Tel.: 943 801684
e-posta: ondarre@nispavista.com
www.acvmmultimedia.com/ondarre



Goian Irubelakaskoako gailurreria lehen planoan, Gorramendi eta Gorramakil atzean; hurrengo argazkian, Iparlako gandorra.

Harpeko Saindua

Urritzateko harana mendiz inguratu ondoren txoko liluragarria bisitatzeko aukera eskaintzen digu Bidarraira inguratu izanak: Harpeko Saindua leizea.

Itsusiko haitzen magalean gordeta dago leizea; Harpeko Saindua bertako estalagmita bat da. Frantsesek *"le saint qui sue"* esaten diote; izerditzen duen santua. Azaleko gaitzak sendatzeko ahalmena omen du santuaren urak. Sumuseko Maria Luisak dioenez, "bertako ura etxera eraman eta bederatzi egunez harekin behar duzu garbitu. Esaten dute sinestea behar dela..."

Kondairaren arabera, Bidarraiko neska gazte bat galdu zen behin inguru hauetan, eta herrikoek, kezkatuak, haren bila hasi zirenean ez zuten arrastorik ere aurkitu; ez gorpurik eta ez ezer. Hala ere inguruetan "hago, hago!" esaten zuen ahots bat entzuten zen. Gau batean, zerua

sutan balego bezala jarri eta argi indartsu bat sartu zen leizezuloan. Biharamunean, bertakoek leize hura arakatu zutenean, galdutako neska aurkitu zuten bertan, harri bihurtuta ordea: horixe da Harpeko Saindua.

Harpeko Saindua leizera heltzeko, Infernuko zubia deritzona zeharkatu eta Basasagarreko bidea jarraitu dugu, kilometro erdi batean. GR-10-eko margo ikurrek eskuinerantz jotzen duten uanean horiei jarraitu, harik eta hiru kilometroren ostean, zirko baten oinean dagoen baserri batera heldu arte. Honainokoa da autoz heltzeko aukera; azken metroak, oinez egin beharko ditugu.

Zeharkatu berri dugun Infernuko zubiak ere badu bere historiatxoa: diotenez, deabruak berak bere burua bota zuen zubi honetatik behera, herritarrei ziria sartzeko euskara ikasi ezin zuela ikustean.



Itsusiko harriak Sumuseko bentatik, altzoan behera Bastan erreka.

atsegina, eraikuntza militar baten hondakinek eta Otsondoko mendatetik datorren errepide zahar baten arrastoak zeharo itsusten baitute berez ederra behar lukeen eremua. Gailurra bera (1.082 m) ere hondakinen artean dago. Ia geratu gabe egingo dugu aurrera, eremu desolatuak gure barrenean sorrarazi duen zirrara ahaztu nahian.

Gailurrerriari jarraituz, Otanarte (1.065 m) eta Gorramendi (1.070 m) bisitatu dugu segidan; puntan antena bana izanagatik Baztan behatzeko talaia bikainak biak. Beherako bidea hartuko dugu, Aizpitzako muino antenadunean jarririk begia. Aizpitzako muinoa ezkerretatik saihestu eta Otsondo mendatetik datorren errepidearekin egingo dugu topo, ibilaldiko puntu garrantzitsu batera helduz. Baztan haranera jaitzen diren bide nagusi guztiak baztertu eta, Iparlako mendi multzora zuzenduko baikara ahalik eta gutxienean jeitsiz.

lepoan (575 m) atsedean hartuko dugu, igoeraren lehen zatia osatu ostean.

Bidexka baso txiki batean barnertuko da, eta margo ikur zein zedarrak jarraituz egingo dugu gora. Azken malda zorrotzera heldu aurretik –kontuz igo beharrekoa–, eskuinerantz jo eta basoaren amaiera iragarriko duen lepoa bat gaingitu beharko dugu –igarobide garrantzitsua, margo ikurrak eta kairnak–. Hortzak estutu eta azken metroak osatzea baino ez da falta. Irubelakasko edo Alkaxuri (957 m). Ia konturatu ere egin gabe, 750 metroko desnibela gaingitu dugu igoera gogorra

burutuz. Ikuspegia, amestua: Iparlako Buztanzelai gailurreria, Gorramendi-Gorramakil mendi multzoa, Alkurruntz, Itsusiko harriak, Iguzkimendi, Artzamendi, Baigura...

Gorramendi-Gorramakil mendi multzoa

Ibilbideari berrekingo diogu, kontu handiz gandor zorabiagarriari jarraitu, Gorostiko lepo berdera heldu arte. Bardako kaskoa ezkerretatik saihestu eta, xenda nabaririk gabe, bidean gora egingo dugu, Gorramakileko gailurraren bila. Perspektiba berria, ordea, ez da espero bezain